LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2017UDIR0001

Alkatetzaren Dekretoa 2017/0160 Decreto de Alcaldía

Udal intereseko kultur, kirol, aisia eta antzeko jarduerak egiteko Udal dirulaguntzak 2017ko ekitaldiak burutzeko behin-behineko kopuruen banaketa

Legorretako eragile, elkarte edo/eta erakundeek Kultur, Kirol, Aisia eta antzeko jarduerak gauzatzearekin neurri batean Udalaren intereseko eta zeregin diren esparruetan dakarten onura kontutan izanik eta herriaretzako duten interes orokorra kontutan izanik, Legorretako Udalak laguntza politika bat ezarri du bertako eragileek burutzen dituzten ekintzak diruz laguntzeko.

Hori horrela izanik, gastu horiei aurre egiteko Legorretako Udalak 1.00.00.481.334.00.03.2017 aurrekontu partida du.

Honetaz gain, Udalak herriko eragileekin bat etorriz diru hori banatzeko prozedura bat landu du.

Herriko eragileek 2017. urterako aurkeztu dituzten egitarau eta aurrekontuak erabakitako prozeduraren arabera aztertu eta neurtuta , dagokion Udal sailak dagokion proposamena egin du.

Proposamen hau 10 egunetako epe batez entzute tramitera jarri zaie eragileei, bakoitzak zerizkion zuzenketa, ohar, puntualizazio, ñabardura eta abar eginak izan zakizkion.

Azkenik dagokion Udal sailak lanketa guzti honetatik eratorritako proposamena luzatu du berau onartua izan dadin.

Horrela izanik, ditudan eskurantzak erabiliz, hau da hartu dudan

ERABAKIA:

***LEHENIK*:** Legorretako Udalaren 1.00.00.481.334.00.03.2017 aurrekontu partidan 25.700,00 € kopurua 2017 ekitaldian aipatzen ari garen esparru honetarako erreserbatuak izatea.

BIGARRENA: Erabilitako prozedurari jarraituz dagokion Udal sailak proposaturiko 2017rako dirulaguntzak onartzea, urtea amaitu ondoren egingo den likidazioan erabakitakoaren kalterik gabe.

ARETO FUTBOL TALDEA	2.274,28 €
ALDAIETA Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartea	5.980,97 €
ELEKUN Abesbatza	1.568,00 €
GAZTE-PIKU Gazte Asanblada	2.111,11 €
IRRINTZI-ALAI LUGORRI Dantza Taldea	8.750,49 €
PIKUK	2.412,94 €
UGAROTARRAK Guraso Elkareta	2.509,32 €

HIRUGARRENA: Entitate onuradun bakoitzarekin bi aldeen betebeharrak jasotzen dituen egin beharreko landidetza hitzarmenak onartzea, Legorretako Udalak subentzionatzen dituen kultur, kirol, aisialdi eta antzeko jarduerak gauzatzeko, hitzarmen horiek dekretu honetako 1. Eranskinean jasotzen direlarik.

LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: Hitzarmenean adierazitakoarekin bat etorriz, aurrerapen gisa, elkarte bakoitzaren 2017rako dirulaguntzaren % 60a ordaintzera jotzea, likidazio ondoren aterako diren zenbatekoak edozein direla ere. Kopuru hauek ondoren zehaztuak datozenak izanik:

ARETO FUTBOL TALDEA	1.364,60 €
ALDAIETA Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartea	3.588,60 €
ELEKUN Abesbatza	940,80 €
GAZTE-PIKU Gazte Asanblada	1.266,70 €
IRRINTZI-ALAI LUGORRI Dantza Taldea	5.250,30 €
PIKUK	1.447,80 €
UGAROTARRAK Guraso Elkartea	1.505,60 €

Legorreta, 2017ko ekainaren 2a.

Alkatea,

HERRI N. eta Leko UDALA
LEGURRETA

Zelai Amenabarro Goikoetxea